

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, UNIBASQ-EUSKAL UNIBERTSITATE SISTEMAREN KALITATE AGENTZIAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2016

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko bilkurak aho batez onartu zuen joan den azaroaren 30ean Unibasq-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren fiskalizazio txostena, 2016ko ekitaldiari dagokiona.

2016ko urteko kontuei dagokienez, HKEEk aldeko iritzia plazaratu du.

Txostenak ondorioztatu du Unibasq-ek **zuzentasunez bete duela** 2016ko ekitaldian jarduera ekonomiko-finantzarioa arautzen duen **lege arautegia**, nahiz aldi baterako 4 lan kontratazio berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak bete izana bermatuko duen prozesurik gabe gauzatu diren.